

Diru iturriak

Diru-laguntzak lortzeko lanbide aukeratu dugu egokiena iruditzen zaigulako. [Lanbide](#) Eusko Jaurlaritzak lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientazioa emateko zure esku jartzen duen Euskal Enplegu Zerbitzua da. Bertan diru laguntza ugari ematen dituzte hainbat baldintza betetzen badituzu.

Baldintzak:

- EAEn erroldatuta egotea eta benetan bizitzea.
- Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea.
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza-prozesuan sartuta egotea.
- Enpresa edo negozio berri bat edozein jarduera-arlotan garatzeko ideia bat izatea.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian lehendik alta eman ez izana.
- Enpresa-idea aztertzeko eta garatzeko zereginetan arduraldi eskusiboan jardutea.
- Enpresa-idea sortze eta garatze aldera deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek definitutako aholkularitza emateko eta laguntzeko jarduera guztietara bertaratzea.
- Xede horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez izana.
- Aurreko deialdietan, enpresa-idea bat garatzeko edo enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzak).

Aurretik aipatutako baldintza guztiak beteta, lanbidek eskaintzen dituen diru laguntzak hauek dira:

Pertsona sustatzaileak: Bere enpresa-ideiaren garapenerako laguntzaren kopuru maximoa, sustatzaile bakoitzeko 1.000 eurokoa izango da. Sustatzaileak 18 eta 30 urte bitartekoak badira, jasoko duten laguntza %15ean handituko da, eta sustatzailea emakumea bada, beste %15ean ere handituko da.

Lanbideren diru laguntza jasoko ez bagenu Bilboko udaletxera joango ginateke hainbat [Diru laguntza](#) eskaintzen dituztelako. Orain arte egon diren diru-laguntzen epea bukatu da, baina haien laguntza eskatzen badugu, haiekin kontaktuan jarriko ginateke baldintzei eta diru-laguntzei buruz informazioa lortzeko.